



Ainhoa Larrañaga

♦ MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Euskara eta boterea

MAX WEBERREN arabera boterea da, norbaiti zerbait inposatzeko probabilitatea, baita bere borondatearen aurka bada ere. Botereak askatu egin dezake baina baita zapaldu ere. Hizkuntza baten erabilera boterea-ekin zuzenki eta estuki lotua dago. Botereak egiten du hizkuntza bat hegemonikoa edo minorizatua. Beraz, ezinbestean lotu behar dugu euskararen egoera botere (eza)rekin.

Hona hemen Pako Aristik bere azken liburuan dioena, beste hamaika egia-ekin batera “Euskararen egoera ez da hobetuko Euskal Herriak independentzia lortu arte. Bere erabilerak ez du gora egingo. Ez da sortuko bere aldeko uholde ilusionagarriarik. Aurrekontuak ez dira ugarituko, besteak beste hizkuntza gutxitu batek, automatikoki, helburu estrategikoa izateari uzten diolako”. Herri baten identitatea eraiki edo deseraikitze botereak daukan armarik ahaltsuena hizkuntza da.

Mezu nahasgarri gehiegi jasotzen ditugu egunero euskararen balizko normalizazioaren inguruan; mezuok, inor ez iraintzeko eta ahalik eta jende gehien euskararen unibertsora erakartzeko helburuz egiten omen dira. Menpekotasun egoera areagotzeko baino balio izan duten mezu horiek, gehienon

Mezu nahasgarri gehiegi jasotzen ditugu egunero euskararen balizko normalizazioaren inguruan; mezuok, inor ez iraintzeko eta ahalik eta jende gehien euskararen unibertsora erakartzeko helburuz egiten omen dira

ipar galtzea eragin dute, nire irudikoz. Aristik liburuan oso ongi definitzen dituen bi termino –“amnesia” eta “naturaltasuna”– baliagarri zaizkigu egungo egoera nahasia ulertzeko. Ahaztu egin zaigu, euskararen desgertze bidea, urte luzeetako dominazio eta jazarpenaren ondorio izan dela. Deshistorizazio honek memoria historikoaren galera eragin du, egungo egoerara faktore naturalen eraginez iritsi garela sinetsaraziz.

Seduzitu egin behar omen dugu jendea euskarara etor dadin, erakar- garri bihurtu behar dugu euskara eta euskara ikasten ez dutenei sinestarazi behar diegu altxor bat galtzen dutela. Hizkuntzen elkarbizitzaz hitz egiten ere, sarri entzuten ditugu hamaika “euskal” eragile eta politikari. Nola izan liteke hizkuntzen elkarbizitza orekatua, bata hegemonikoa denean eta bestearen suntsiketa besterik ez duenean nahi? Bi estatu inperialistek burututako kolonizazio prozesu luzearen emaitza da hau guzti hau.

Hori ulertzea ezinbestekoa da, ustezko garai politiko berriotan, bolo-bolo dabilen bestearekiko abegikortasunaren tramaz eta dramaz jabetu eta aurre egin ahal izateko. ■



Edu Zelaieta

♦

IDAZLEA

Alternatiba bakarra

PSE-EE alternatiba bakarra dela aldarrikatu berri du Idoia Mendiak eta, hurrengo hauteskundeetan atarian, gainerako alderdi guztiak ez direla baleko aukera gaineratu. Hain da zaharra eta zaharkitua estrategia, ezen narda egiteraino errepi- katu den leloa aditu hutsak nekatu egiten baitu. Eta harritu, oraindik ere, hura –urrikalmendurik gabe– erabiltzeak: lehengo lepotik burua alderdien politika- gintzan.

Saltzaile bakoitzak du salgai onena, egiatan balio duen bakarra. Ez erosi beste inori, hau bezalakorik ez duzu inon topatuko. Ni naiz bilatzen duzun hori.

Zuk baino hobeki dakit zer nahi duzun, zer komeni zaizun. Hauxe da-eta behar duzuna. Erosi: ez zara damutuko; eta damutuko bazina, dirua itzuliko genizuke. Ez izan dudarik. Hurrengo merkatura arte. Hurrengo merkealdira arte.

Idoia Mendiari entzunak genizkion hitz handiosak sistemaren berritzeaz: “Gaurko alderdiak geroko ere izanen badira, erro-errotik aldatu behar dira egi- turak, pentsamoldeak, politi- ka gauzatzeko moduak”. Urte berrian sartu gara, baina bizi- rik dirau batzuen gogo- min- gain herdoilduak. ■

